




Ekintzaileen Nazioarteko Mentorizazioa



Aurreko buletinetik hona, INTGEN proiektuko kideok egoera ezberdinak bizi izan ditugu. Alde batetik, Finlandian heziketarako mugikortasun jardura bikain batean parte hartu genuen, hain zuzen Helsinkiko eta Porvoo Unibertsitatetan, 2015eko ekainean eta bestetik, “halabeharrak” Bruselako 2015eko azaroaren 24 – 27ko ekintzak zuzenean bizitzera eraman gintuen. Une hura “laugarren mailako alerta” eta / edo Ezinbestekoa bezala kalifikatu zen Erasmus+ programako proiektuen baitan. Lehenengo mugikortasuna arrakastatsua izan zen bertaratuen esanetan, izan ere, metodologia dinamiko berriak ikasi genituen, esaterako “Co-creación” eta “Living-Lab” izendatuak. Metodologia hauek etorkizuneko ekintzaileak izango diren unibertsitateko gazteekin jarri ziren praktikan; horiekin interakzioan aritzen gara, euren negozio ideien inguruko feedbacka emateko. Metodologiak Porvoo kaletaraino eraman gintuen eta bertako oinezkoekin interakzioan aritu ginen, negozio ideia garatuen inguruko bideragarritasunaz zein iritziz zuten galdetuz. Jardura honen erabilgarritasun maila bikaina dela egiaztatuta da, bai etorkizuneko ekintzaileentzat eta bai guretzat.

INTGEN PROIEKTUKO BABESLEAK



www.intgen-eu.com

Project Number: 2014-1-ES01-KA200-004372

Donostiako “co-creación” ospakizuna

2016ko urtarrilaren 25ean, Cdea eskolako kideek “co-creación” izendaturiko tailerra antolatu zuten, Finlandiako heziketa prozesuan ikasitako metodologiaren eta jarraibideen erabilera eginez. Finlandian prestatutako eta Cdea eskolan Secotekin gaitutako sei aholkulari berriek “Belaunaldi arteko Ekintzailearen Eguna” ospakizuna antolatu zuten, Erdi Mailako eta Goi Mailako LH-ko 200 ikaslerekin metodologiaren erabilera egiteko.

Jardunaldia, 2015eko irailaren 30ean (Adineko Pertsonen Eguna) abiatutako sorkuntza prozesu luze baten emaitza izan zen. Secot-eko aholkulariek eta aholkulari berriek metodologia eta ebaluaketa prozesua azaldu zituzten ikasleentzat. 2015eko abenduaren 18an Cdea eskolak tailer ezberdinak antolatu zituen ikasleak berrelikatzeke asmoz Secot-eko eta Errotu-ko aholkularien bidez, horrela euren proiektuak berriro definitzea ahalbidetzeko.

Emaitzak 2016ko urtarrilaren 25ean aurkeztu ziren. Egun horretan ospakizun bikaina antolatu zen amaiera proiektuak aurkezteko. “Belaunaldi arteko Ekintzailearen Eguna” ospakizunaren abiapuntua Kubako iraultza erabat kontrako ikuspuntuetatik bizi izan zuten 83 eta 85 urteko bi ahizpak eskainitako hitzaldia izan zen; ahizpa biak ekintzaileak izanik, euren ibilbide luzea jakinduriaz eta umorez jendarteratzeko gai izan ziren.

Ekitaldiaren amaieran, adituen belaunaldi arteko epaimahai batek enpresa ideia onenak saritu egin zituen.



Aurora eta Rosa Albistur, gure ekintzaile apartak

Ekitaldi amaieran, adituen belaunaldi arteko epaimahai batek enpresa ideia onenak saritu egin zituen.

Izugarri gozatu genuen!



Ikasle eta ekintzaile gazte sarituetako batzuk



Aholkulariek, hezitzaileek eta enpresek eratutako epaimahaia.

Hedapena

Intgen proiektuak Eusko Jaurlaritzaren onarpenarekin kontaktzen du, Etengabeko Heziketan eta Okupazionalan garatua izateko.